Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
10. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena **10.** ***Infraestructuras y Desarrollo Territorial***	**02.** Lurralde Garapena **02.** *Desarrollo Territorial*	**151.102** Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza **151.102** *Ordenación Territorial y Planificación Urbana*

151.102 programa "Lurralde Antolamendua eta Hiri Plangintza" jarduteko hiru esparrutan antolatzen da:

I. Lurraldearen antolamendua

II. Hiri plangintza

III. Informazio geografikoa eta kartografia

I. Lurraldearen antolamendua

Lurralde antolamenduaren arloak honako xede hauek dauzka:

- Lurraldearen antolamendurako tresnak sortzea, honako hauen babesean: Eusko Legebiltzarraren 4/1990 Legea (maiatzaren 31koa, Lurralde Antolakuntzari buruzkoa), ingurumen-eraginaren arloan indarrean dagoen araudia eta legez ezarrita dauden herritarrek parte hartzeko bideak.

- Bizkaiko lurraldeko hirigintzaren eta antolamenduaren egoeraren informazio eguneratua argitaratzea, Aldundiaren webgunearen bitartez.

- Lurralde Plan Partzialetan paisaiaren osagaia sartzea; hori Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-antolamenduan paisaia babestu, kudeatu eta antolatzearen gaineko ekainaren 3ko 90/2014 Dekretuak ezarri duena betez burutuko da.

2027ko ekitaldian zehar, egiteko aurreikusi diren jarduerak hauek dira:

- Lurralde Plan Partzialak berrikustea, Lurralde Antolamenduaren Gidalerroetara egokitzeko.

El programa 151.102 " Ordenación Territorial y Planificación Urbana" se articula en tres áreas de actuación:

I. Ordenación Territorial

II. Planeamiento Urbanístico

III. Información Geográfica y Cartografía

I. Ordenación Territorial

El área de Ordenación Territorial tiene los siguientes objetivos:

- La elaboración de instrumentos de ordenación del territorio, al amparo de la Ley del Parlamento Vasco 4/1990, de 31 de mayo de Ordenación del Territorio, la normativa vigente en materia de impacto ambiental y los cauces de participación ciudadana establecidos legalmente.

- La publicación de la información actualizada de la situación urbanística y de la ordenación del Territorio de Bizkaia a través de la página web de la Diputación.

- La introducción de la componente paisajística en los Planes Territoriales Parciales, en cumplimiento de lo fijado en el Decreto 90/2014, de 3 de junio, sobre protección, gestión y ordenación del paisaje en la ordenación del territorio de la CAPV.

Durante el ejercicio 2027 las actuaciones que se tiene previsto realizar son las siguientes:

- Revisión de los Planes Territoriales Parciales para su adaptación a las Directrices de Ordenación Territorial.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
10. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena **10.** ***Infraestructuras y Desarrollo Territorial***	**02.** Lurralde Garapena **02.** *Desarrollo Territorial*	**151.102** Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza **151.102** *Ordenación Territorial y Planificación Urbana*

- Lurralde antolamenduko tresnak egitea eta aurrerapenaren, hasierako onespenaren eta behin-behin-behineko onespenaren hasierako faseetan onestea, eta parte-hartze publikoa kudeatzea.

- Bateragarritasun-planak ebaztea eta, hala badagokio, izapidetzea, baldin eta haien ekimenari buruzko udal-akordiorik lortu ez bada edo foru-organoari eskuordetu bazaio.

- Lurzoru ez-urbanizaezineko plan bereziak eta udalez gaindiko plan bereziak ebaztea eta, hala badagokio, izapidetzea, baldin eta udal-erabakirik hartu ez bada ekimenari buruz edo foru-organoari eskuordetu bazaio.

- Ingurumen-ebaluazioa egitea bertan integratutako jasangarritasun energetikoko plan eta azterlanetarako.

- Bizkaiko lurraldeak erabilera zehatz batzuk hartzeko duen gaitasunari buruzko berariazko azterlanak egitea.

- Bizkaiko Lurralde Historikoko paisaia-katalogoak egitea eta paisaia-zehaztapenak sartzea lurraldeko plan partzialetan.

- Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeari laguntzea, sailak egindako planak aurkeztea eta eskatutako espediente guztien berri ematea.

II. Hiri plangintza

Hiri plangintzaren arloak honako xede hauek dauzka:

- Udalei laguntza ematea pixkanaka beren plangintzak Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Eusko Legebiltzarraren ekainaren 30eko 2/2005 Legera egokitzeko.

- Elaboración, y aprobación en sus fases iniciales de avance, aprobación inicial y aprobación provisional de los Instrumentos de ordenación territorial, y la gestión de la participación pública.

- Resolución y, en su caso, tramitación de planes de compatibilización en los que no se haya alcanzado acuerdo municipal sobre su iniciativa, o se haya delegado en el órgano foral.

- Resolución y, en su caso, tramitación de planes especiales en suelo no urbanizable y planes especiales supramunicipales en los que no se haya alcanzado acuerdo municipal sobre su iniciativa, o se haya delegado en el órgano foral.

- Elaboración de la evaluación ambiental para los planes y los estudios de sostenibilidad energética integrados en la misma.

- Elaboración de estudios de carácter específico sobre la capacidad de acogida del territorio de Bizkaia para determinados usos.

- Elaboración de los catálogos de paisaje del Territorio Histórico de Bizkaia y la incorporación de las determinaciones de paisaje en la normativa de los Planes Territoriales Parciales.

- Asistencia a la Comisión de Ordenación del Territorio de País Vasco, presentando los planes elaborados por el Departamento e informando todos los expedientes requeridos.

II. Planeamiento Urbanístico

El área de Planeamiento Urbanístico tiene los siguientes objetivos:

- Ayudar a los Ayuntamientos en la progresiva adaptación de sus planeamientos a Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
10. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena **10.** ***Infraestructuras y Desarrollo Territorial***	**02.** Lurralde Garapena **02.** *Desarrollo Territorial*	**151.102** Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza **151.102** *Ordenación Territorial y Planificación Urbana*

- Hiri plangintza behin betiko onestea Eusko Legebiltzarraren Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean ezarritako eskumenei jarraikiz.
- Indarreko hiri plangintzako agiriak artxibatu eta mantentzea eta administrazio erregistroak kudeatzea herritar guztiei zuzendutako informazio horri heltzeko, bai inprimatutako euskarrian, bai euskarri informatikoan.
- Bizkaiko Lurralde osoaren hirigintza egoerari buruzko informazio eguneratua argitaratzea, Aldundiaren web orrialdearen bitartez.

- La aprobación definitiva del planeamiento urbanístico de acuerdo con las competencias establecidas en la Ley del Parlamento Vasco 2/2006, de 30 de junio, de Suelo y Urbanismo.
- El archivo y mantenimiento de los documentos de planeamiento urbanístico vigente y la administración de los registros administrativos para cubrir esta información dirigida a toda la ciudadanía, tanto en soporte impreso como informático.
- La publicación de la información actualizada de la situación urbanística de todo el Territorio de Bizkaia a través de la página web de la Diputación.

Adierazitako helburu horiek lortu ahal izateko, gastu programa honek aurreikusi egiten du jarduketa multzo hau egitea:

- Udal Administrazioan sortutako hiri plangintzako espedienteak izapidetu eta ebaztea.
- 7.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, egitura antolamenduko planei buruzko espedienteak ebaztea.
- 3.000 biztanletik beherako udalerrien kasuan, antolamendu xehatuko planei buruzko espedienteak ebaztea.
- Hiri plangintzaren aurrerapeneko hasierako faseetan eta hasierako onespenetan txostenak egitea behin betiko onespena emateko eskumendun udal mailako hirigintzako bitartekoetan.
- Hirigintza-plangintza orokorra idazteko lanak esleitzeko udalek eskatzen dituzten "adituen batzordeetan" parte hartzea.

Para la consecución de los señalados objetivos, este programa de gasto contempla la realización de las siguientes actuaciones:

- La instrucción y resolución de los expedientes de planeamiento urbanístico generados en la Administración Municipal.
- Resolución de expedientes sobre planes de ordenación estructural en municipios de menos de 7.000 habitantes.
- Resolución de expedienes sobre planes de ordenación pormenorizada en municipios de menos de 3.000 habitantes
- Elaboración de informes en las fases iniciales de avance y aprobación inicial del planeamiento urbanístico en instrumentos de planeamiento municipal sobre los que se ostenta la competencia de aprobación definitiva.
- Participar en los “Comités de expertos” requeridos por los ayuntamientos para la adjudicación de lo trabajos de redacción del planeamiento urbanístico general.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
10. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena **10.** ***Infraestructuras y Desarrollo Territorial***	**02.** Lurralde Garapena **02.** *Desarrollo Territorial*	**151.102** Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza **151.102** *Ordenación Territorial y Planificación Urbana*

- Hirigintza arloetako plangintzari buruzko aholku orokorrak ematea eta kontsultei erantzutea.
- Bizkaiko Hirigintza Plangintzaren Erregistroa eguneratzea eta kudeatzea.
- Bizkaiko Hirigintzako Plangintzako Informazio Geografikoko Sistema kudeatu, eguneratu eta hobetzea.
- Interes publikoaren adierazpenak lurzoru urbanizaezinean.
- Hirigintza Arloan Interesa Duten Elkarteen Erregistroa Kudeatzea.
- Diru-laguntza ildo bat sustatzea, 7.000 biztanletik beherako Bizkaiko Udalei zuzendua, plangintza baliabideak egin ditzaten.

- Asesoramiento general y atención a consultas respecto a la planificación urbanística.
- Actualización y gestión del Registro de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia.
- Gestión, actualización y mejora del Sistema de Información Geográfica de Planeamiento Urbanístico de Bizkaia.
- Declaraciones de Interés Público en suelo no urbanizable
- Gestión del Registro de Agrupaciones de Interés Urbanístico de Bizkaia.
- Promover una línea de subvención dirigida a los Ayuntamientos de Bizkaia de población inferior a 7.000 habitantes, para la realización de instrumentos de planeamiento.

III. Informazio geografikoa eta kartografia

Informazio geografikoaren eta kartografiaren arloaren helburua Bizkaiko Lurralde Historikoko informazio geografikoa sortzea eta argitaratzea da, Bizkaiko Foru Aldundiaren eskumenak garatzeko beharrezkoa dena, beste administrazio eta erakunde publiko batzuek behar dutena, eta oro har jendeari zerbitzua emateko beharrezkoa dena.

Informazio hori gainerako lurralde historikoekin, erkidego mugakideekin eta Europarekin bateragarria den moduan eman beharko da.

Xede hori lortzeko aurreikusitako jarduketa beharrezkotzat iritzi da produkzio kartografikoa egokitzea, INSPIRE Europako zuzentaraura, eta LISIGE horren estatuko transposiziora Lurralde Historikoko Datu-Base Topografikoa (BTB) sortuz eta mantenduz.

III. Información Geográfica y Cartografía

El área de Información Geográfica y Cartografía tiene como objetivo el generar y publicar la información geográfica del Territorio Histórico de Bizkaia que resulta necesaria para el desarrollo de las competencias de la Diputación Foral de Bizkaia, así como para otras Administraciones e Instituciones Públicas y para dar servicio al público en general.

Dicha información deberá facilitarse de forma compatible con los otros territorios históricos, comunidades limítrofes y, en última instancia, Europa.

Como actuación prevista para cumplir este objetivo se estima necesaria la adecuación de la producción cartográfica a la Directiva Europea INSPIRE y a su trasposición normativa estatal LISIGE, generando y manteniendo la Base Topográfica (BTB) del Territorio Histórico.

Sail Egitarau Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento Programa - GASTOS

SAILA / *DEPARTAMENTO*	ATALA / *SECCIÓN*	FUNTZIONALA / *FUNCIONAL*
10. Azpiegiturak eta Lurralde Garapena **10.** ***Infraestructuras y Desarrollo Territorial***	**02.** Lurralde Garapena **02.** *Desarrollo Territorial*	**151.102** Lurralde Antolamendu eta Hiri Plangintza **151.102** *Ordenación Territorial y Planificación Urbana*

Bestalde, lehentasun bat da Bizkaiko GNSS saretik eta hori osatzen duten estazioetatik ateratzen diren datuak Aldundiaren web orrian argitaratzea, eta baita sare hori mantentzea ere. Sare horrek Bizkaiko Lurralde Historikoan aritzen diren topografiako profesionalei zerbitzua ematen die. Sarea berritzea ezinbestekoa da zerbitzuaren kalitatea eta BFAren autonomia (beste eragile eta operadoreekin) bermatzeko.

2027ko ekitaldian zehar egiteko aurreikusi diren jarduera zehatzak hauek dira:

- Bizkaiko GNSS sarea mantentzea eta eskuratzen diren datuak Aldundiaren web orrian argitaratzea.
- Bizkaiko Lurralde Historikoko doitasun handiko nibelazio-sarea gauzatzea eta lorturiko datuak Aldundiaren web orrian argitaratzea.
- Aholkularitza Juridikoko Atalarekin lankidetzan aritzea, Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruko udal-mugen mugaketaren zati grafikoan eskumena baitugu. Udal-mugei buruzko informazio grafikoa kudeatu eta mantentzea, garapen-fasean dagoen aplikazio espezifiko baten bidez.
- Hegaldi georreferentziatua.
- Kartografia: ekoizpena, eguneraketa eta mantentzea.
- BBT kartografia eguneratua, artxibo kartografiko historikoa eta produktu fotogrametrikoak argitaratzea.

Por otra parte, resulta prioritario publicar en la página web de la Diputación los datos que se obtienen de la Red GNSS de Bizkaia y de las estaciones que la conforman, así como ocuparse de su mantenimiento. Dicha red da servicio a los profesionales de la topografía que operan en el TH de Bizkaia. La actualización de la Red es indispensable para garantizar la calidad del servicio y la autonomía de la DFB frente a otros agentes y operadores.

Durante el ejercicio 2027 las actuaciones concretas que se tiene previsto realizar son las siguientes:

- Mantenimiento de la Red GNSS de Bizkaia y publicación de los datos que se obtienen en la página web de la Diputación.
- Materialización de la red de nivelación de alta precisión del Territorio Histórico de Bizkaia y publicación de los datos obtenidos en la página web de la Diputación.
- Colaboración con la Sección de Asesoría Jurídica, ya que tenemos competencia en la parte gráfica de la delimitación de los límites municipales dentro del Territorio Histórico de Bizkaia. Gestión y mantenimiento de la información gráfica de los límites municipales a través de una aplicación específica en fase de desarrollo.
- Vuelo georreferenciado.
- Producción, actualización y mantenimiento de cartografía.
- Publicación de cartografía BTB actualizada, archivo cartográfico histórico y productos fotogramétricos.

Helburu eta Ekintzen Sail eta Egitarauka - GASTUAK
Objetivos y Acciones por Departamento y Programa - GASTOS

Saila , Zentru Kudeat. eta Programa / Departamento, Centro Gestor y Programa

10	**Azpiegiturak eta Lurralde Garapena** ***Infraestructuras y Desarrollo Territorial***
1002	**LURRALDE GARAPENA** ***DESARROLLO TERRITORIAL***
151102	**LURRALDE ANTOLAMENDUA ETA HIRI PLANGINTZA** ***ORDENACION TERRITORIAL Y PLANIFICACION URBANA***

Helburua, Ekintza eta Adierazlea / Objetivo, Acción e Indicador

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Aurreikusia / *Previsión*
1	**HIRIGINTZAKO UDAL PLANGITZA ONARTU** ***APROBACION PLANEAMIENTO URBANISTICO MUNICIPAL.***	
1	EGITURAZKO ANTOLAMENDURAKO PLANEN EBAZPENA *RESOLUCIÓN DE PLANES DE ORDENACIÓN ESTRUCTURAL*	
1	Foru agindurako txosten teknikoen kopurua *Número de informes técnicos para orden foral*	8
2	Zuzendutako agirien txosten teknikoen kopurua *Número de informes técnicos de documentos corregidos*	10
3	Ebazpen proposamenen kopurua *Número de propuestas de resolución*	8
2	ANTOLAMENDU XEHATUKO PLANEN EBAZPENA *RESOLUCIÓN DE PLANES DE ORDENACIÓN PORMENORIZADA*	
1	Foru agindurako txosten teknikoen kopurua *Número de informes técnicos para orden foral*	1
2	Zuzendutako agirien txosten teknikoen kopurua *Número de informes técnicos de documentos corregidos*	1
3	Ebazpen proposamenen kopurua *Número de propuestas de resolución*	1
2	**LURRALDE ANTOLAKETARAKO PLANAK EGIN** ***ELABORACION DE PLANES DE ORDENACION TERRITORIAL.***	
1	PLANAK IZAPIDETU *TRAMITACION DE PLANES*	
1	Egiten ari diren planen kopurua. *Número de planes en proceso de elaboracion*	2
2	Planen azterketa osagarrien kopurua *Número de estudios complementarios de los planes.*	2
3	**AHOLKULARITZA ETA LAGUNTZA HIRIGINTZA ETA LURRALDE ANTOLAMENDUAREN ARLOAN** ***ASESORAMIENTO Y ASISTENCIA EN MATERIA DE URBANISMO Y ORDENACION TERRITORIAL***	
1	KONTSULTEN ARRETA *ATENCION A CONSULTAS*	
1	Administrazio eta erakunde publikoetako kontsulta kopurua *Número consultas Administraciones y Entidades Públicas*	80
2	Bizkaiko Foru Aldundiko Sailen kontsulta kopurua *Número de consultas de Departamentos de Diputación Foral de Bizkaia*	30
3	Pertsona fisiko eta juridikoen kontsulta kopurua *Número de consultas de personas físicas y jurídicas*	80

BIZKAIKO FORU ALDUNDIA / *DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA*

Helburu eta Ekintzen Sail eta Egitarauka - GASTUAK
Objetivos y Acciones por Departamento y Programa - GASTOS

Kodea / *Código*	Deskribapena / *Descripción*	Aurreikusia / *Previsión*
2	IRIZPENAK ETA TXOSTENAK EGIN *EMISION DE DICTÁMENES E INFORMES*	
1	Txosten eta irizpen kopurua *Número de informes y dictámenes*	50
3	AZTERKETAK EGITEA *ELABORACIÓN DE ESTUDIOS*	
1	Azterketen kopurua *Número de estudios*	1
4	**GIS HIRIGINTZAKO INFORMAZIOA** ***GIS INFORMACIÓN URBANÍSTICA***	
1	HOBEKUNTZA APLIKAZIOETAN *MEJORA EN APLICACIONES*	
1	Hobekuntza kopurua *Número de mejoras*	2
2	HIRIGINTZAKO INFORMAZIOAREN MANTENTZEA *MANTENIMIENTO DE INFORMACIÓN URBANÍSTICA*	
1	Eguneratze kopurua *Número de actualizaciones*	4
5	**UDAL PLANGINTZAREN ELABORAZIOA ETA KUDEAKETA SUSTATZEA** ***FOMENTO A LA ELABORACIÓN Y GESTIÓN DEL PLANEAMIENTO MUNICIPAL***	
1	PLANAK IDAZTEKO DIRU LAGUNTZAK UDALENTZAT *SUBVENCIONES A AYUNTAMIENTOS PARA REDACCIÓN DE PLANES*	
1	Emandako laguntza kopurua *Número de ayudas concedidas*	25
6	**BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOAREN KARTOGRAFIA SORTZEA OPTIMIZATZEA** ***OPTIMIZAR LA GENERACIÓN CARTOGRÁFICA DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE BIZKAIA***	
1	KARTOGRAFIA ARLOKO BEHARRIZANEI ERANTZUNA EMATEA *DAR COBERTURA A LAS NECESIDADES EN MATERIA CARTOGRÁFICA*	
1	Fotogrametria *Fotogrametría*	3
2	Kartografia *Cartografía*	3
3	Geodesia *Geodesia*	3
4	Lankidetza udal harremanekin *Colaboración con relaciones municipales*	1
5	Udal-mugak *Límites municipales*	1